

## 2012/06/26(e)ko saioa

### **LEHENDAKARITZA**

Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea aldatzearen alde

### **HERRIZAINGO SAILA**

Herrizaingo Sailak hamar milioi euro bideratu ditu mehatxatutako pertsonak babesteko

Ertzaintzak berriro egin du Oiartzungo bere baseko polizia-praktikarako galeria

### **HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

Ikerketa eta berriztapen teknologikoa

11,53 milioi euro pertsonal ikertzailearen prestakuntza eta hobekuntzarako beketarako

1.627.850 euro Leonardo da Vinci eta Erasmus Etengabeko Ikaskuntzaren Programarako

### **EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**

Gobernu-Kontseiluak E.A.E.ko Administrazioaren eta Finantza-erakundearen arteko finantza-lankidetzarako hitzarmen bat onetsi du. Horren bitartez, enpresentzako aparteko finantzaketa-lerroa prestatu da, 666 milioi euro mobilizatu ahal izateko

### **ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA**

Egazelain 49 zuzkidura-bizitoki sustatzeko Eibarko Udalarekin akordioa izenpetzea onartu du Jaurlaritzak

### **ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

Zahartze aktiboari buruzko lankidetzaren hitzarmena Ingema Fundazioarekin

### **OSASUN ETA KONTSUMO SAILA**

Osasun eta kontsumo Sailak 300.000 euro bideratuko ditu GIB/HIESaren prebentzioaren eta kontrolaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko

erakundeentzako laguntzetara

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak, hirugarren urtez jarraian, lankidetzan hitzarmen bat sinatu du Lan eta Immigrazio Ministerioarekin (GSIN), aldi baterako ezintasuna hobetzeko programarekin jarraitzeko

### **INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

Emakume Nekazarien Estatutuaren Lege proiektua onartu da

Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpen eta kudeaketa arautzen duen Dekretua onartu da

### **KULTURA SAILA**

Kultura Sailak ondoko diru-laguntzak eskatzeko epea ireki du: museoak sustatzekoak eta kultura ondarearekin eta zabalkuntzarekin lotura duten museoetako jarduerak burutzekoak. 500.000 euro daude diru-laguntza horietarako

Jaurlaritzak 200.000 euro bideratuko ditu toki-mailako gazte-ekipamenduetarako

## LEHENDAKARITZA

### **Eusko Jaurlaritzak, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea aldatzearen alde**

Erabakia, Euskal Sozialistak, Euskal Talde Popularrak eta Mistoa-UPyD legebiltzar- taldeek aurkeztu duten lege-proposamen bat aintzakotzat hartu ala ez erabakitzean Jaurlaritzak erabili duen irizpidea jakinarazteko. Lege-proposamen hori Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Ordaina egiteko Legea aldatzeko da.

Eusko Jaurlaritzak gaur erabaki du Euskal Sozialistak, Euskal Talde Popularra eta Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeek Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea aldatzeari buruz egindako lege-proposamena aintzakotzat hartzearen aldeko irizpidea agertzea

Eusko Jaurlaritzaren iritzian, proposatutako aldaketak laguntza, prestazio eta zerbitzu batzuk eskuratzeko euskal araudian galda daitezkeen erroldatze baldintzak modulatzeko eta, ondorioz, mehatxu terroristatik Euskaditik alde egin behar izan zutenak itzul daitezkeen laguntzen du.

## HERRIZAINGO SAILA

### **Herrizaingo Sailak hamar milioi euro bideratu ditu mehatxatutako pertsonak babesteko**

Erabakia, pertsonak babesteko zerbitzuetako lanak egiteko 5.000.000 eurotik gorako kontratuaren luzapena baimentzeko.

### **Segurtasun pribatuko enpresekin gaur egun indarrean dagoen kontratuaren luzapena da, urte amaierara arte**

Gaur, Gobernu Kontseiluak onetsi egin du mehatxatutako kolektiboetako pertsonen eskolta-zerbitzuak finantzatzen dituen kontratua luzatzea. Kontratu hori abenduaren 31ra arte mantentzera bideratutako partida hamar milioi eurokoa da.

Mehatxatutako kolektiboetako pertsonak babesteko lana, batez ere, segurtasun pribatuko langileak kontratatuta egin duten Barne Ministerioak eta Herrizaingo Sailak. Euskal Administrazioaren kasuan, horretarako, ondoz ondoko kontratazio-espeditenteak onetsi dira, 2001etik gaur egunera arte, enpresa horiei atxikitako eskolten zerbitzuak ordaindu ahal izateko.

Gaur egun indarrean dagoen espedienteak hamazortzi hilabeteko aldirako onetsi zen, eta aldi hori aurtengo maiatzean amaitu da. Horregatik, oraindik ere espediente hori martxan jartzea ekarri zuten arrazoiek partzialki jarraitzen dutenez, gaur espediente horren luzapena onetsi da aurtengo abenduaren 31ra arte.

Data horretan, beste adjudikazio bat egin ahal izango litzateke. Luzapena finantzatzeko aurrekontu-kontsignazioa hamar milioi eurokoa da.

### **Ertzaintzak berri egin du Oiartzungo bere baseko polizia-praktikarako galeria**

Komunikazioa, Ertzaintzak Oiartzunen (Gipuzkoan) duen egoitzako praktika polizialeterako galeria egokitzeko ekipamendua hornitu, instalatu eta martxan jartzeko kontraturako larrialdi-espedienteari buruzkoa.

### **Ertzainek eta udaltzainek tiro-praktikak egitea ahalbidetuko du**

Herrizaingo Sailak espedientearen berri eman dio gaur Gobernu Kontseiluari. Espediente horren bidez, 120.136,46 euroko partida bideratu da Oiartzungo Ertzaintzaren zentralako polizia-praktikarako galeria konpontzeko. Instalazioak berritzeari esker, Gipuzkoako udaltzaingoetako agenteek eta Ertzaintzako agenteek Oiartzunen egin ahal izango dituzte ariketak eta entrenamenduak. Izan ere, gaur egun, ariketa eta entrenamendu horiek beste egoitza batzuetan egin behar dituzte, hala nola, Arkauten.

Sailak aurrera eraman duen espedienteari esker, beharrezko ekipamendua hornitu, instalatu eta martxan jarriko da, polizia-praktikarako Oiartzungo galeria egokitzeko. Horrela, azpiegitura egokitzeko obrak amaitzen direnean, irailaren amaiera aldera, Gipuzkoako Udaltzaingoetako agenteak eta Ertzaintzako agenteak tiro-ariketak eta birziklatzeak egiten hasi ahal izango dira Oiartzunen. Izan ere, gaur egun, horretarako, beste instalazio batzuetara joan behar dute, hala nola, Arkauteko Ikastegira. Ondorioz, dirua eta denbora aurreztuko dute.

Oiartzunen egin ahal izango diren ariketa praktikoaren barruan, hauek daude: Ertzaintzako herritarren segurtasunerako agenteak ordena publikoko zereginetan erabili beharreko pilota-jaurtigailu berrietara egokitzeko ariketak. Prozesu hori azkar egiten ari da Ertzaintzako unitate guztietan, sistema horiek ahalik eta arinen jartzeko zerbitzuan. Izan ere, aurrekoak baino zehatzagoak eta seguruagoak dira. Agenteen prestakuntza azkar hori bultzatzeko beharrezko ondorioz, obrak finantzatzeko espedientearen premiaz izapidetu da.

Espedientearen enpresa adjudikazioduna GTS Electrónica S.L. da.

## **HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

### **Ikerketa eta berriztapen teknologikoa**

Agindua, Unibertsitatea-Enpresa egintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza

Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten duena (2013-2014).

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindu bat onartu du gaurko bileran. Agindu horren bidez deitzen dira ikerketa eta berriztapen teknologikorako dirulaguntzak, 2013-2014 ikasturtean unibertsitatearen eta enpresen arteko jardueretarako aurreikusitako fondoek kontura.

Deialdi honek 229.472 euroko aurrekontu globala du 2013-2014ko ekitaldirako eta ekoizpen-enpresentzat erabilgarri izango diren Ikerketa Aplikatu eta Teknologikoko proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak deitzea du helburu. Unibertsitate-ikertzaileek, Zientzia, Teknologia eta Ikerketaren Euskal Sareko eragile batzuek eta enpresa eta erakundeetako Ikerketa eta Garapeneko unitateek hartuko dute proiektu horietan parte, aplikazio sozial, industrial edo teknologikoko gaiak garatzeko gizarte- edota industria-jarduerak eginez.

### **11,53 milioi euro pertsonal ikertzailearen prestakuntza eta hobekuntzarako beketarako**

Erabakia, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzeko dena, 2012/13 ikasturtean doktoreak ez diren ikertzaileen doktoretza aurreko prestakuntza programa berritzeko eta beka berrien deialdia egiteko finantzaziorako, hain zuzen.

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2012/2013ko ikasturtean doktorea ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako doktoretza aurreko programan beka berriak deitu eta zeudenak berritzen dituen agindua.

Agindu honek, 11.531.854 euroko zenbateko globalean, 2012-2013ko ikasturtean doktorea ez den pertsonal ikertzailearentzako beka finkatu eta deitzea ditu helburu. Deialdiak beka berriak ematea eta 2011/2012ko ikasturterako eman zirenak berritzea hartzen ditu.

Doktoretza aurreko programak ikertzaileen prestakuntza sustatu nahi du, doktorearen titulua lortzeko eta kalitateko ikerketa zientifikoari lotutako gaitasun eta trebetasunak eskuratzeko doktoretza-programa baten barruan, ondorengo bi azpiprograma hauen bidez:

Doktorea ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako beka azpiprograma Euskal Autonomia Erkidegoko aplikazio-zentroetan: A modalitatea.

Doktorea ez den pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako beka azpiprograma Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko aplikazio-zentroetan, bai Espainiako estatuan (B modalitatea) bai atzerrian (C modalitatea).

### **1.627.850 euro Leonardo da Vinci eta Erasmus Etengabeko Ikaskuntzaren Programarako**

Agindua: honen bidez diru-laguntzetarako deialdia egiten da Leonardo da Vinci eta Erasmus azpiprogramak antolatu eta garatzeko Etengabeko Ikaskuntzako Programaren esparruan.

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Leonardo da Vinci eta Erasmus Lanbide Heziketako azpiprogramak Etengabeko Ikaskuntzaren programa esparruan, proiektuak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindu bat.

Dirulaguntzen deialdi honek, 1.627.850 euroko zenbateko globalean, Etengabeko Ikaskuntzaren programa europarren barruan onartutako proiektuak Europako Erkidegoarekin batera finantzatzea du helburu, Leonardo da Vinci eta Erasmus azpiprogramei dagozkien gaietan eta Hirugarren Mailako Lanbide Heziketari (Goi Mailako Heziketa Zikloak) eta unibertsitate-ikasketei dagozkien gaietan.

## **EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**

**Gobernu-Kontseiluak E.A.E.ko Administrazioaren eta Finantza-erakundearen arteko finantza-lankidetzarako hitzarmen bat onetsi du. Horren bitartez, enpresentzako aparteko finantzaketa-lerroa prestatu da, 666 milio euro mobilizatu ahal izateko**

Erabakia, finantza-entitate batzuekin hitzarmen bat izenpetzeko baimena emateko dena. Helburua: berme publikoko aparteko finantzazio-lerro bat gaitzea.

Gobernu Kontseiluak onetsi egin du beste finantzaketa-bide bat sustatzen duen hitzarmen bat sinatzea. Horrela, finantza-erakundeei EAEko Administrazioaren bermeak ematearen bitartez, ekoizpen-jarduerari eustea eta enplegua mantentzea sustatuko da.

Hitzarmenarekin, 666 milioi eurora arteko ekarpena egingo da abaletan. Eusko Jaurlaritzak mailegu eta kredituetarako abal batzuk emango dizkie (400 milioi euro gehienez), arrisku partekatuan (% 60 Eusko Jaurlaritzak, eta gainerako % 40a finantza-erakundeek), finantza-erakundeek emandako finantzaketaren onuradunei.

Maileguen zenbatekoei dagokienez, 50.000 eta 750.000 euro bitartekoa izango da enpresa txiki eta ertainentzat, eta 10.000 eta 100.000 euro bitartekoa banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

Hitzarmen honekin arriskuak ez dira, guztiz edo zati batean, finantza-erakundeetatik administrazioa lekualdatuko. Aldiz, beste finantzaketa bat eta beste baldintza batzuk eman beharko zaizkie hitzarmenarekin bat egingo duten onuradunei. Horixe da babes publikoaren justifikazioa.

Europako Batzordeak hitzarmenaren baldintzak gainbegiratu ditu, estatuko laguntzen inguruko erkidegoko arauak bete ditzaten. Gauzak horrela, Europako Batzordeak adierazi du onetsiko diren eragiketa guztiek berriak izan beharko dutela, hau da, ezin izango direla erabili aurreko kredituak berreskuratu edo

birnegoziatzeko.

Finantza-erakundeekin egindako hitzarmena tresna berrienetako bat da iragan martxoan onetsi zen aparteko programaren barruan, eta 2.180 milioi eurora arteko kopurua mobilizatzen du ekonomia sustatzeko eta Euskadiko enpresek dituzten finantzaketa-arazoetarako irtenbideak bilatzeko.

Hazkundera eta jarduera ekonomikoa suspertuko duten talka-neurri antiziklikoak sustatzeko abiarazi zen neurrien paketea.

## **ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA**

**Egazelain 49 zuzkidura-bizitoki sustatzeko Eibarko Udalarekin akordioa izenpetzea onartu du Jaurlaritzak**

Jaurlaritzaren Kontseiluak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren eta Eibarko Udalaren arteko akordioa onartu du gaur Egazelain 49 zuzkidura-bizitoki eraikitzeko.

Horretarako, Eibarko Udalak lursaila laga du Egazelai arean eta Etxebizitza Sailak lehen etxebizitza-multzoa eraikitzeko proiektua egiteko lizitazioa egin du.

Jarduketa hau gazteei zuzendutakoa da, batez ere, eta behe solairua, bost altuera eta atikoa izango duen eraikinean gauzatuko da. Alokairu-prezioak 225 euro ingurukoak izango dira hilean, esleitutako etxebizitzaren arabera.

Zuzkidura-bizitokiarena esperientzia berria da (oso hiri gutxitan daude honelako etxebizitza-motak), eta bizi-egoera dela-eta hainbat logeladun etxebizitza handia behar ez dutenei aldi baterako soluzioa emateko balio du. Hori dela-eta, kontratuaren iraupena 5 urtekoa da eta etxebizitzaren azalera 25 eta 60m<sup>2</sup> artekoa. Horrez gain, eraikinetan errentari guztiek erabiltzeko guneak daude.

## **ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**Zahartze aktiboari buruzko lankidetzak-hitzarmena Ingema Fundazioarekin**

Erabakia Fundación Instituto Gerontológico Matía (INGEMA) fundazioari zuzeneko diru-laguntza bat emateko. Helburua: adineko pertsonentzako I+G ekimenen, etxez etxeko arreta-eredu integralaren eta heziketa-jardueren garapenari bultzada ematea.

Jaurlaritzaren Kontseiluak oniritzia eman dio lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeari Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta "Instituto Gerontológico Matía (INGEMA)" fundazioaren artean, zahartze aktiboaren eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arretaren arloan ikerketak egin ahal izateko. Hitzarmenak bi urteko iraupena izango du (2012 eta 2013), eta zenbatekoa 4 milioi eurokoa izango da.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak bere helburuen artean dauka gizarte-zerbitzuen esparruan berrikuntza sustatzea, erkidegoan oinarritutako zaintza-eredu iraunkorrerantz aurrera egiteko, autonomia funtzionala mugatuta duten pertsonen duintasuna, nahiak eta bizi-kalitatea errespetatuz eta sustatuz. Hortxe kokatzen da "Etxean ondo" izeneko esperientzia pilotua, zeina, Gipuzkoako bost udalerritan egindako lehenengo fase arrakastatsua ondoren, euskal geografiaren gainerako lekuetara zabaltzea aurreikusten baita.

Hitzarmenak, era berean, jardunbide egokiak sortu eta garatu nahi ditu zentro gerontologikoetako bizikidetzeta-unitateen inguruan, pertsonetan eta housing paradigmaren printzipioetan oinarritutako arreta-eredua eskaintzeko eta eredu horren inguruan eguneko zentroetan esperientzia berriak sortzeko eta daudenekin jarraitzeko, bereziki eguneroko bizitzan jarduera terapeutikoak sartuz.

Hitzarmen honen esparruan, I+Gko jarduerak burutuko dira, autonomia sustatzearen eta adinekoen artean menpekotasuna prebenitzearen inguruan jakintza areagotzeko. Jarduera horien artean dago Legacy proiektua, AEBetako Cornell Unibertsitatearekin lankidetzan egingo dena. Esperientzia honetan, zahartzen ari diren pertsonen bizitzan erreferente izan diren alderdiak zabalduko dira, beste belaunaldi batzuei jakinaraztea komenigarria dela iritzita.

Esparru honetan, lankidetzari esker, azterketa bat egingo da, CSIC zentroarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoek egiten dituzten lan ordaindu gabeek BPGan duten eraginari buruz; horretarako, Stiglitz metodologia erabiliko da.

Azkenik, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren finantziazioak aukera emango du, batetik, zenbait irakaskuntza-proiektu egiteko pertsonetan oinarritutako arreta gerontologikoaren ereduari lotutako zenbait alderdiren inguruan eta, bestetik, prestakuntza-jarduerak burutzeko tratu onari eta tratu txarren prebentzioari buruz, "Zahartzen diren pertsonen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko 100 proposamen" izeneko dokumentuan egindako proposamenak betetzeko. Era berean, ikastaro pilotuak egingo dira laguntzaile pertsonalek (Menpekotasunari buruzko Legean aurreikusitakoak) eta kasu soziosanitarioen kudeatzaileek behar dituzten gaitasunak eta trebetasunak identifikatzeko.

## **OSASUN ETA KONTSUMO SAILA**

**Osasun eta kontsumo Sailak 300.000 euro bideratuko ditu GIB/HIESaren prebentzioaren eta kontrolaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeentzako laguntzetara**



Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak, aurten, 300.000 euro bideratuko ditu Euskadin GIB/HIESa prebenitu eta kontrolatzeko jarduerak burutzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei zuzendutako laguntzetara.

Laguntza horien helburua da aurten burututako hainbat ekintza finantzatzea, hala nola, GIBarekiko bereziki ahulak diren kolektiboen inguruan (gizonekin sexua duten gizonak, immigranteak, prostituzioan jarduten direnak eta drogak bide parenteraletik hartzen dituztenak) prebentziorako esku-hartzeen estrategiak burutzea.

### **Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak, hirugarren urtez jarraian, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du Lan eta Immigrazio Ministerioarekin (GSIN), aldi baterako ezintasuna hobetzeko programarekin jarraitzeko**

Erabakia, Lan eta Immigrazio Ministerioarekin lankidetzaren hitzarmena sinatzeko baimena emateko. Helburua: aldi baterako ezintasunaren prestazioa hobetzeko kudeaketa-estrategia batzuk bideratzeko eta iraupen motzeko prozesuen jokabidea aztertzeko programarekin jarraitzea 2012an.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du Lan eta Immigrazio Ministerioarekin, aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa hobetzeko kudeaketa-estrategia batzuk garatzeko.

Aldi baterako ezintasunaren kudeaketaren emaitzak hobetzeko nahitaezkoa da arlo horretan eskumena duten organismo eta erakundeen (Osasun eta Kontsumo Saila eta GSIN) arteko lankidetzaren bitartekoak ezartzea, eragindako langileei zerbitzu hobea emateko eta kostu ekonomikoen arrazionalizazioa eta eustea bultzatzeko, sistemaren jasangarritasuna lagunduko bada. Hori dela eta, 2010ean ezarri zen esparru horretako lehen hitzarmena, eta 2011n ere jarraipena izan zuen. Emaitzak onak izan zirenez, erakunde biek erabaki dute duela bi urte ekindako lankidetzaren eta koordinazioaren bideari eustea eta 2012rako berriz ere hitzarmena sinatzea.

2012rako lankidetzaren hitzarmenaren helburua da Osasun eta Kontsumo Sailaren eta GSINen artean lankidetzaren neurriak ezartzea aldi baterako ezintasunaren inguruan, EAEn aldi baterako ezintasunaren kudeaketa arindu, modernizatu, koordinatu eta kontrolatzeko neurriak ezartzera bideratutako berriazko programa baten bidez. Osasun eta Kontsumo Sailak bere gain hartzen dituen konpromisoen artean dago iraupen laburreko aldi baterako ezintasunen patroia aztertzea.

# INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## **Emakume Nekazarien Estatutuaren Lege proiektua onartu da**

Lege-proiektua, emakume nekazarien estatutoari buruzkoa.

## **Nekazaritza ustiategiaren %32ren jabegoa dute emakumeek eta, ustiategiaren %31k bakarrik dute emakume bat buru.**

Gobernu Batzordearen gaurko bileran Emakume Nekazarien Estatutuaren Lege proiektua onartu da, landa eremuan gizonen eta emakumeen arteko harremanak eta aukera berdintasuna bultzatzeko eta sektoreko alor guztietan genero ikuspuntua gehitzeko neurrien dokumentua.

Gobernu Batzordeak, Pilar Unzalu sailburuak aurkeztutako proiektuari bide eman dio eta horrela, emakumeek nekazaritza sektorean jasaten dituzten desberdintasun egoerak desagerrarazi nahi dira. Besteak beste, euren onarpen profesionala, estima soziala eta eskubide fiskal, profesional eta sozialak erabilgarri izatea.

Estatutuak 31 artikulua ditu, 2 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile 1 eta 4 azken xedapen. 6 titulutan egituratua dago: Xedapen Orokorrak, ustiategiaren jabetza, sektorean emakumeek duten ordezkariak, giza-eskubideak, euren lanaren errekonozimendua eta zabaltea, eta azkenik, Estatutuaren Jarraipen Komisionari dagokiona.

Dokumentuak, ustiategiaren jabetza partekaturako emakumeen aukera aldarrikatzen du baita belaunaldi erreleboa lortzea eta horrela nahiko balute, emakumeek landa ingurunean bizitzea jarraitu ahal izateko lan aukerak izatea. Era berean, ikastaroetan eta formazio programetan izena emateko preferentzia aitortzen zaie.

Sektoreko erabaki organoetan gero eta emakume gehiago egon daitezkeen neurriak proposatzen dira baita emakumeen bereziki diren lan arriskuak ekiditen saiatzekoak eta jasan dezaketen sexu-jazarpenari aurre egitekoak.

Emakume nekazariaren Estatutu horrek ez du inolako araudi aurrekaririk, nahiz eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun lortzeko asmoz horrelako politika bateratzaileak eta diskriminazio positiboak ekimen, gomendio eta mandatu ugari egon -nazio zein nazioartekoak-.

Gaur egun, indarrean dauden 15.000 ustiategietatik, %32etan bakarrik dago jabegoa emakumeen eskuetan eta ustiategiaren %31ean emakume bat buru.

Bestetik, ustiategietan kontratatzen den langileriaren artean, kontratatutako emakumeen (233) batez bestekoa %21 da. Gainera, erabaki postuetan emakumeen presentzia oso urria da, bai landa

sindikatueta baita Landa Garapenerako Erakundetan ere.

## **Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpen eta kudeaketa arautzen duen Dekretua onartu da**

Dekretua, Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautuko dituena.

Gobernu Batzordeak gaurko bileran, eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpen eta kudeaketa erregimen juridikoa arautzen duen dekretua onartu du. Horrekin, eraikinen funtzionaltasuna eta kalitatea gutxitzen ez duten eraikuntza jasangarriari bultzada ematen zaio. Eraikuntza mota horrek hondakinen sortzea nabarmen gutxitzen du.

Otsailaren 1eko 105/2008 Erret Dekretua erregulatzen duen Dekretu horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzten du arau betetzea eta obra larrietan ematen diren eraispén eta eraikuntza material eta hondakinak sortu edo dituzten enpresek eta langileen betebeharrak finkatzen ditu. Hori dela eta, edozein obra proiektuetan derrigorrezkoa izango da eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketarako ikerketa.

Hondakinak dituzten enpresa eta langileek, bere aldetik, hondakinen kudeaketa ikerketaren alde ezberdinak biltzen dituen plana aurkeztu beharko dute baita betetze maila egokia izan dezan arduradunaren edo arduradunen identifikazio zehatza ere.

Era berean, hondakinak sortzen dituen pertsonak obra lizentzia lortzeko fidantza bat jarri beharko du. Horren helburua, obra larrietan sortzen diren eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzea da.

Azkenik, Dekretuak eraikuntza eta eraispén hondakinen desagertze eta balioztatze jarduerak erregulatzen ditu. Horretarako ingurumen organoaren baimena eskatuko da.

Finan, dekretu horren helburuak hauek dira:

Ingurumen egoera seguruetan eraikuntza eta eraispén materialen berrerabilpena sustatzea.

Ingurumen egoera egokietan, prebentzioa, birziklapena eta edozein motatako eraikuntza eta eraispén hondakinen balorazioa sustatzea.

Eraikuntza eta eraispén hondakinen desagertzea gutxitzea.

Eraikuntza eta eraispén hondakinen desagertze egokia ziurtatzea.

Eraikuntza jasangarriaren alde egitea, beti ere, eraikinen kalitatea eta funtzionaltasunari eutsiz.

## KULTURA SAILA

**Kultura Sailak ondoko diru-laguntzak eskatzeko epea ireki du: museoak sustatzekoak eta kultura ondarearekin eta zabalkuntzarekin lotura duten museoetako jarduerak burutzekoak. 500.000 euro daude diru-laguntza horietarako**

Agindua, museoak sustatzeko eta kultur ondarearekin eta zabalkundearekin zerikusia duten museo-jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Gobernu Kontseiluak gaur Kultura sailburuaren Agindu bat onetsi du eta Agindu horren bidez, 2012. urtean ondoko diru-laguntzak emateko deialdia ireki da: museoak sustatzekoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko museoak eta bildumak zaintzeko eta zabaltzeko jarduera jakin batzuk finantzatzekoak. Diru-laguntza horiek jaso ditzakete Euskadin dauden museoetako edo bildumetako jabeak diren pertsona fisiko edo juridikoek, publiko zein pribatuek; baina Euskadiko Museoen eta Bildumen Erregistroan izena emanda egon behar dute edo izena emateko eskaera egin behar dute diru-laguntza eskatzeko epea amaitu baino lehen.

Kanpoan geldituko dira aldundiaren museoak edo bildumak, zenbait fundazioren museoak eta bildumak (Jaurilaritzako Kultura Sailak fundazio horien gobernu-organoetan parte hartzen badu) eta zenbait merkataritza-entitateko museoak eta bildumak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek entitate horien kapitalean partaidetza baldin badu), baita 2012. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan diru-laguntza izendunak dituzten museoak eta bildumak ere.

Ondokoetarako diru-laguntzak emango dira:

- a) Erakusketak eta argitalpenak: erakusketa iraunkorra berritzea, aldi baterako erakusketak eta zenbait euskarritan egindako argitalpenak.
- b) Hezkuntza eta kultura-ekintza: zenbait programa eta material didaktiko egitea, jardunaldiak /hitzaldiak, web orriak sortzea.
- c) Dokumentazioa: inbentarioko eta katalogazioko lanak, museoko edo bildumak funtsak EMSIME sisteman digitalizatzea.
- d) Azterketak: ikerketa lanak, zerbitzuen gutuna, plan zuzentzailea, kalitate plana, merkatu azterketak, bezeroei buruzko azterketak egitea.

Deialdirako 500.000 euro daude eta diru-laguntzek aurrekontuaren zenbatekoaren % 85ekoak izan daitezke gehien jota, gehienez 45.000 eurokoak jarduera bakoitzagatik. Onuradun bakoitzak gehien jota bi jarduera eska ditzake.

**Jaurilaritzak 200.000 euro bideratuko ditu toki-mailako gazte-ekipamenduetarako**

Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko 2012erako diru-laguntzak emateko modua arautu eta deitzen duena.

Gobernu Kontseiluak Kulturako sailburuaren agindu bat onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko 2012rako diru-laguntzak emateko modua arautzeko. Horretarako, 200.000 euro erabiliko ditu.

Kultura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteria eta gizarte-ekintzaren esparruan jarduerak suspertzeko lanetan dihardu beste zenbait erakunderekin batera. Helburu hori lortu nahian, Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko laguntzak eskaintzeko bideak ezartzen dira agindu horren bitartez, bai ekipamendu berriak eraikitzeko, bai orain daudenak handitzeko edo hobetzeko.

Laguntzotarako 200.000 euro bideratuko dira. Euskadiko Autonomia Erkidegoan berezko izaera juridikoa duten toki-erakundeek eta berezko nortasun juridikoa duten udalaz gaindiko mankomunitate edo erakundeek indarreko legeriaren arabera udal batek baino gehiagok eratuta egon eta nortasun juridiko berezkoa dutenak jaso ahal izango dituzte soil-soilik agindu horretan adierazten diren diru-laguntzak. Udalaz gaindiko erakunde horiek, bakoitzaren estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, bidezko gaitasuna eta egokitasuna erakutsi behar dute, beren jardun-esparruaren barruan, haien proiektuak behar bezala aurrera eramateko. Ez dira onuraduntzat joko beren estatutuetan gazte-politika erakundearen eskumenekoa dela jasota ez duten hainbat udalerriz osaturiko udalaz gaindiko erakundeak.

Diru-laguntza jasotzeko modukoak izango dira berariaz 12 eta 30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduak izango dituzten higiezinak eraiki, eraberritu, egokitu edo handitzeko lanak egiteko profesional gaituek landutako proiektuen erredakzio-laneko gastuak, bai eta lan horiek 2012ko ekitaldian exekutatzeko gastu edota kostuak ere. Kasu guztietan, erakunde eskatzaileak gutxienez kostu osoaren % 30 finantzatu beharko du bere funts propioekin.

Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua indarrean jartzen denetik aurrera.